

# Zaintza eta gobernamentalitate neoliberalala

Lore Lujanbio Etxeberria

*Zientzia Politikoetan doktoregaia UPV/EHU*

**A**zkenengo urteetan, Iparralde globaleko herrialdeetan, zaintzaren inguruko diskurtsoak biderkatu egin dira, eta hori gizarteko eremu eta aktore aunitzetan antzeman dezakegu: komunikabideetan, alderdi politikoen adierazpenetan, Nazio Batuen agentzien hiztegian, herri mugimenduetan, iragarkietan, sindikatuen borroketan, mugimendu eta ikerketa feministen hausnarketa eta aldarrikapenetan, erizaintzaren inguruko gogoetetan, administrazio publikoen hainbat ekimeneetan, adindunen elkarteetan eta abar.

Halaber, polisemia handiko hitza da, esanahi eta erabilera oso ezberdinak aurkituko baititugu, adibidez, krema edo gimnasio baten iragarki batean, gizarte zerbitzuetan, osasun arloan, hezkuntzan, eguneroko bizitzako elkarrizketetan, teoria eta diskurtso feministetan, Ertzaintzaren kontrolak izendatzean edo hainbat filosoforen lanetan. Azkenengo horien artean, esaterako, Platon, Heidegger eta Foucaultek zaintza eta 'norberaren zaintza' nozioak erabili zituzten, baina inola ere ez lan feminizatu eta zapalkuntza patriarkalez aritzeko.

Teoria eta diskurtso feministei dagokienez, hitzaren erabilera areagotzeaz gain, aldaketa kualitatibo konplexuagoak gertatu dira. Izan ere, hamarkada batzuk lehenago kontzeptua ez zen existitzen, ez behintzat egun erabiltzen den zentzu

batean, hau da, kontzeptu politiko, ekonomiko eta etiko abstraktu gisa. Orobat, definizioari dagokionez, orokorrean ez dago adostasunik. Horrekin lotuta, nozioaren erabileraren zabaltzearekin eta gaiaren garrantzia handitzearekin, zaintza kontzeptuaren inguruko eztabaida feministak indarra hartu du. Dimentsio anitzeko kontzeptua da eta ertz ugari gurutzatutako gaia; beraz, helburu eta ikuspegi arabera, alderdi bat edo beste nabarmendu dezakegu. Horien artean kontzeptu ahistoriko bezala ulertzeko joera azpimarratzekoa da, hots, testuinguru zehatzetatik kanpo esanahia duela pentsatzekoa. Beraz, esentzializatzea, nolakotasun propioak eta berezkoak balitu bezala kontsideratzekoa. Ondorioz, gizarte heteropatriarkaletan feminizatzea eta dominazio sistemen mekanismo konplexuak estaltzea. Izan ere, zaintza eta emakume zaintzailea ez dira bere horretan, botere mekanismo eta nolakotasun historikoetatik kanpo, antzeman ditzakegun entitateak. Horrenbestez, ezinbestekoa da horiek historikoki eta begirada kokatutik aztertzea.

## **Zaintza kontzeptuaren inguruko eztabaida feministak**

Zaintzaren inguruko gogoeta feministak nahiko berriak dira: lehenengo testuak 80ko hamarkada hasieran argitaratu ziren, eta, adibidez, ekonomia feministaren arloan 90eko hamarkadan. Horiek Mendebaldeko gizarteetako emakumeen esperientziak aztertzeke eta politizatzeke garatu ziren, eta gehien zabaldu diren lanak herrialde anglosaxoiak izan dira (Folbre 1995, Gilligan 1982, Himmelweit 1995, Tronto 1987). Orobat, kontzeptuaren arazoak adierazten dituzten nazioarteko testu feministak 90eko hamarkadatik aurkituko ditugu, eta ikuspegi anitzetatik garatu dira (Thomas 1993). Horrela, 2000tik aurrera, Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian analisi eta eztabaida feministetan gaiaren presentzia handitu egin da, eta eremu horretako ikerketetan kategoria analitiko eta ikuspegi askotarikoak daudela ageriko egin da

(Lleó, Santillan, López Gil eta Pérez Orozco 2012). Izan ere, kategoria analitikoaren loraldia gertatu da, eta, besteak beste, zaintza mota ugari aztertzeko kontzeptu eta adierazleak sortu dira. Halaber, hainbat autorek adierazten dute orain arte zaintza feminismitik soilik ikertu dela, baina ondoren zabalakunde handiagoa izan duela, batez ere ongizate estatuen ikerketaren eremuan (Daly eta Lewis 2000, Torns 2013). Halaber, azkenengo urteetako hainbat fenomenekin lotuta, zaintza nozioaren erabilera zabaldu egin da. Nabarmenen artean, mugimendu feminista eta sindikatuen borroka, zaintza krisia eta COVID-19aren izurritea. Gure testuinguruan adibide ezagunak ditugu azkenengo urteetako Martxoak 8ak, adindunen erresidentzietako grebak eta zaintza-sareak.

Horrela, erabilera politiko-soziala zabaltzearekin batera, kontzeptuaren inguruko eztabaida feministak indarra hartu du. Izan ere, literatura akademikoan presentzia duen arren, ez dago kontsentsurik kontzeptuaren definizioaren inguruan, ezta ikerketa objektu bezala eraikitzeko moduan ere (Carrasco, Borderías eta Torns 2019). Orokorrean nabarmentzen da feminizatutako jarduerak direla, subalternizatuak, hau da, lan baldintza prekarioak dituztela, kapital ekonomiko, sozial, kultural eta sinboliko baxua dutela, eta zapalkuntza askotarikoak gurutzatzen direla eremu horretan. Definizio eta ikuspegiak askotarikoak dira, eta sarritan nahastu egiten dira. Nabarmenen artean, batetik, Carol Gilliganen (1982) lanari jarraituz, zaintzaren dimentsio etikoa azpimarratze dutenak. Horrela, zaintza etika eta praktika erlazionala dela helarazten dute, behar eta gorputz zehatzen inguruan jarduten duela. Bigarrenik, asetzen duen beharraren bitartez definitzen dutenak,

Zaintzaren inguruko gogoeta feministak nahiko berriak dira: lehenengo testuak 80ko hamarkada hasieran argitaratu ziren, eta, adibidez, ekonomia feministaren arloan 90eko hamarkadan

eta, ondorioz, haren edukiaren arabera egiten dutenak. Esaterako, Amaia Pérez Orozcok adierazten du zaintzek bizitzaren eguneroko sostengu eta kudeaketari erreferentzia egiten diotela, horietan dimentsio material eta afektiboak bereizi ezinik agertzen direla eta pertsona guztientzat ezinbestekoak direla (Pérez Orozco 2006). Hirugarrenik, jardueraren zioak azpimarratzen dituztenak aurkituko ditugu. Nancy Folbreren iritziz, motibazioak azpimarratzea da zaintza kontzeptuaren bereizgarri esanguratsuenak, besteak beste, beharren bitartez definituz gero ia lan guztiak izan litezkeelako (Folbre 1995). Horrez gainera, zaintza moten sailkapen ugari burutu dira: ordaindua eta ez-ordaindua, jasotzen duten subjektuen arabera edo nolakotasunei eta zamari erreparatuta, esaterako, zaintza ludikoa eta ez-ludikoa bereizten dutenak (Bianchi Pernansilici eta González-Rábago 2015). Zaintza eskalak zehazten dituzten lanak ere topatuko ditugu, eta, adibidez, lehenengo maila, 'kopresentzia' izendatua, espazioa partekatze behar bezala definitzen dute (Mogollón eta Fernández 2019).

Eztabaida eta hausnarketa horietan, kontzeptuaren potentzialtasunak eta muga edota inplikazio politikoak helarazi ohi dira, eta zenbait testutan bi alderdiak batera aurkituko ditugu. Potentzialtasunei dagokienez, hainbat autorek nabarmentzen dute zaintzek dikotomia liberal nagusiak gurtzatzen dituztela, hots, publiko/pribatu, formal/informal eta ordaindutako lana/ordaindu gabeko lana (Daly eta Lewis 2000, Folbre 1995). Halaber, Nancy Folbreren aburuz, ekonomia feministatik erabiltzen diren beste kontzeptuekin alderatuz gero, dibergentziak eta aukerak dituzte. Hau da, 'lan familiarra', 'ordaindu gabeko lana', 'lan erreproduktibo', 'produktio sexual-afektibo' edo 'erreproduktio soziala' bezalako kontzeptuek lan mota edo lanaren kokapena bereizitako esfera bezala azpimarratzen dutela. Hain zuzen ere, zaintza lanen definizioan zioetan arreta jarrita, gizon zein emakume, merkatu zein familia eta produktio zein erreproduktio jardueretan erabil daitezkeela (Folbre 1995). Halaber, hainbat autorek argudiatzen dute, hasiera batean, batez ere alderdi

estuki ekonomikoak eta zenbagarriak aztertu zirela. Hala, 60-70eko hamarkadako gogoetetan etxeko lanaren alderdirik 'ekoizleena' erakutsi zela, eta lan horretan agertzen diren giza harremanei lotutako ezaugarriak, aldiz, bazterrean utzi zirela. Horrela, argudiatzen dute etxeko lanez ari garenean etxean egiten diren lanen dimentsio materiala adierazten dela, eta pertsonen zaintza lanez mintzatzean, ordea, etxeen egunerokorako beharrezko diren lanekin lotuta dauden harremanak eta emozioak ere barne hartzen direla (Benería 2005, Carrasquer 2013, Pérez Orozco 2006). Ildo horretan, Nancy Folbrek zaintza zuzena eta ez-zuzena bereizten ditu: lehena praktika erlazional, pertsonal eta emozionalei dagokio, eta, bigarrena, horiek egiteko edozein jarduerari. Nancy Folbre eta Shahra Razaviren arabera, etxeko lanak 'zeharkako lan' gisa uler daitezke, horren bidez lortzen direlako zuzeneko zaintza lanak egin ahal izateko baldintza egokiak (Folbre 2006, Razavi 2007). Horrez gainera, zenbait ikertzailak argudiatzen dute etxeko lana edo ordaindu gabeko lana bezalako kontzeptuak merkatua aztertzeako kategorietatik eratorri direla, eta zaintza kontzeptuak, berriz, prozesuan jartzen duela begirada eta, merkatua ardatz analitiko bezala alboratuta, paradigma androzentriko eta ekonomizistekiko haustura suposatzen duela (Pérez Orozco 2006).

Kontzeptuaren muga eta inplikazio politikoei dagokienez, azpimarratzekoa da kontzeptu zabal eta lausoegia dela; beraz, zaintza ia guztia baldin bada, aldi berean ez da ezer. Gainera, kontzeptu zabalegia izateak politika zehatzak aurrera eramatea zailtzen du (Durán 2021). Halaber, askotan definizio zabala erabiltzen da hausnarketa eta aldarrikapen feministetan, baina politika publiko eta proposamen zehatzetan, aldiz, nozio murrizta erabiltzen da, hau da, mendekotasun aitortua dutenen oinarrizko beharrak asetzeko jardueretara mugatzen da. Bestetik, teoria horietan kontzeptua esentzializatzeko, hots, era ahistorikoan ulertzeko eta feminizatzeko joera hasieratik izan da kritika gai garrantzitsua. Ildo horretan, Mari Luz Estebanek argudiatzen du zaintza kontzeptua diskurtso feministetan

hipertrofiatu eta gainbaloratu egin dela. Ekarpenak kontuan hartzen ditu, baina batez ere zentralitate horren bi arrisku nabarmenak ditu: batetik, 'zaintzak' hitza gaindimentsionatzea eta, ondorioz, testuinguru historiko eta kulturaletik kanpo ulertzea. Bigarrenik, begirada feministaren sentimentalizazioa. Horrenbestez, kontzeptu ahistoriko eta unibertsal bezala erabiltzeko joera zabaltzen da. Izan ere, testuinguru anglosaxoian sortutako zaintzaren inguruko teorizazioak, hau da, pertsonen ongizate fisiko, psikiko eta emozionala eskaintzeko jarduerak, emakumeen egoera eta bizipenak azaltzeko eraiki

Governamentalitatearen alderdi nagusietako bat boterea gobernu bezala ulertzea da; hau da, portaerak gidatzea eta erregulatzea helburu duen boterea eragiteko estrategia multzoa

ziren. Ondorioz, gogorki generizatu eta naturalizatuta daude, eta publiko/pribatu bereizketarekin lotutako lan banaketa sexualean kokatzen dira. Horrela, testuinguru horietan emakumeei dagokie besteen ongizateaz arduratzea. Bereizketa horrekin ere lotua dago razional (gizon) eta emozional (emakume) dikotomia. Hala-ber, zaintza nozioak antolaketa

sozial eta ekonomiko zehatzean soilik hartzen du zentzua, hau da, Mendebaldeko patriarkatu liberalaren sorrerarekin garatutako prozesuetan ulertu behar dugu. Hortaz, terminoaren erabilera sakontzeko, ezinbestekoa da haren konnotazio historiko, kultural eta generoarenak kontuan izatea (Esteban 2017; Esteban in Abasolo 2010).

## Governamentalitate neoliberalak

Governamentalitatea (frantsesez *gouvernementalité*) Michel Foucaultek 1970eko hamarkada amaieran proposatutako nozioa da, eta Europan XVIII. mendetik aurrera garatutako «gobernatzeko arte liberalak» aztertzeko erabili zuen, hots, gobernatzeko era horren razionaltasuna arakatzeko. Filosofo

frantsesak hauxe argudiatu zuen: kapitalismoaren zabalpenarekin, eta askatasun politikoa ulertzeko era liberalarekin batera, banakoen portaerak zein gorputzak eta biztanleriak, hau da, bizitza eta haren prozesuak gobernatzeko teknologia konplexuak garatu ziren. Izan ere, diziplina berriak gorputza hartzen du, eta haren indar nahiz eragiketak, mugimenduen ekonomia eta efizientzia erregulatzeko xedea du. Alegia, gorputz produktibo eta otzanak ekoizten ditu. Halaber, nabarmendu zuen biztanleria kontzeptu eta errealtate modura agertu zela testuinguru horretan. Izan ere, gobernuek biztanleriaren fenomeno eta prozesu espezifikoei aurre egin behar zieten: jaiotza-tasa, erikortasuna, bizitzaren iraupena, osasun egoera, gaixotasunen maiztasuna, elikadura eta habitata. Horrela, gorputzaren, osasunaren, jateko eta bizitzeko eta eguneroko eremua antolatzeko teknologia politikoen ugaritzea gertatu zen (Foucault 2016, 2018).

Gobernamentalitatearen alderdi nagusietako bat boterea gobernu bezala ulertzea da; hau da, portaerak gidatzea eta erregulatzeko helburu duen boterea eragiteko estrategia multzoa, ez, ordea, soilik errepresio, borroka edota lege bezala ulertuta. Mekanismo horien artean, diskurtsoek elementu ez-diskurtsiboekin batera jarduten dute. Orobat, gobernu mota horiek hainbat erakundez osatzen dira, horien artean estatua, baina ez da bakarra. Izan ere, helburu nagusitzat 'biztanleria' duten prozedura, analisi, hausnarketa multzoek ere osatzen dute. Besteak beste, familia, eskola, erakunde mediko edota fabrikak (Foucault 2006). *La police des familles*,

Botere eta gobernu mota horietan, emakume eta gizonek funtzio ezberdinak zituzten eta dituzte. Esaterako, Jacques Donzeloten *La police des familles* lanean, emakume/amek politika sozialen eta medikuen preskripzioak jarraituz, familia modernoaren eraikuntzan izandako praktikak aztertu zituen. Izan ere, haurren ekoizpen eta kontserbazioa, gizon/senar langileen gorputz produktiboen intentsifikazioa, higiene-praktika eta familia osasuntsu mantentzeko ardura batik bat emakume langileengan kokatu zen (Donzelot 1979). Halaber, Silvia Federicik

aztertzen duenez, XIX. mendean eta XX. mende hasieran eta Ingalaterran etxeko lana eta lanordu osoko etxekoandrea erakitzen hasi zen, ama/emazteak ordaindutako lanetik kanporatzeko lege eta araudien bitartez, edota emakumeei etxeko lana erakusteko, hots, diziplinatze erakundeekin (Federici 2018). Prozesu horiek patriarkatu kapitalistaren eraikuntza osatu zuten, eta, besteak beste, publiko/pribatu, ordaindutako lana/ordaindu gabeko lana eta familia/merkatua dikotomia liberal eta patriarkalak eratzea baliatu.

Horrenbestez, Europako XVIII. mendetik aurrera, liberalismoa gobernu razionaltasun nagusi bilakatu zen. Hots, merkatu askea instantzia 'naturalizat' jotzen zuten hainbat mekanismo garatu ziren, eta hori izan zen praktika gobernamentalen mugatzat ezarritako irizpidea. Liberalismoaren alderdi juridikoak banakoen askatasunen garapena dakar (batez ere jabegoa duten gizon zuriena) eta estatuaren interbentzioa murrizten du. Aitzitik, Foucaultek azaltzen duen modura, horretarako ezinbestekoa izan zen gorputza diziplinatzen duten botere dispositibo berrien ezarpena, lan indarra menperatzen duten eta biztanleriaren bizi fenomenoak erregulatzen dituzten mekanismoen zabalpena (Foucault 2006). Horrela, XIX. mendeko eta XX. mende hasierako heteropatriarkatu kapitalista gobernu razionalitate liberal horrekin artikulatu zen, baina XXI. mendean razionalitate neoliberalarekin giltzatzen da. Liberalismo klasikoak merkatuaren naturaltasuna truke eremu bezala kontsideratzen zuen; gobernamentalitate neoliberalak, berriz, konpetentzia sistema edota enpresa/gizartea egituratzeko xedea du. Horrela, merkatuan hainbat enpresa-unitateren konpetentzia ezartzeko mekanismoak garatzen dira, flexibilitatea eta mugen lausotzea bultzatzen da eta razionalitate hori gizartearen ahalik eta eremu gehienetara zabaltzen da. Modu horretan, banakoa «norberaren enpresaria» kontsideratzen da (Foucault 2016). Beraz, bizitzaren jarduera, behar eta 'arriskuen' erantzukizuna indibidualizatu egiten da, hots, osasun, hezkuntza, enplegu edota doako lanen eremuan ardura indibidualizatu eta pribatizatzen da.



Aipatutako razionalitate gobernamentalaren egitura eta prozesu material eta sinbolikoekin gauzatzen da. Gizarte neoliberaleretan, muturreko merkantilizazio eta finantzarizazio prozesuak bizitzako eremu guztietara zabaltzen dira, eta ongizatea lortzea (kolektiboki kapital sozial, kultural, ekonomiko eta sinbolikoa lortzea) geroz eta zailagoa da, hain zuzen ere, erakunde publikoen pribatizazioa dela eta (Goikoetxea 2017). Egitura publikoen pribatizazioak hedatzen ari dira oro har berdintasunarekin zerikusia duten politika publikoetan, eta, besteak beste, emakumeen doako lana handitzea eragiten dute. Horrez gainera, ordaindutako lanean emakume gehiago daude sektore publikoan pribatuan baino; beraz, murrizketen ondorioak bereziki kaltegarriak izaten dira emakumeentzat. Horrela, ordaindutako lanean sektore feminizatuen prekaritatea ohikoa da; zer esan lan ez-ordainduaren merkantilizazio berantiarretatik eratorritakoetan. Gainera, etxeko lana arautzen duen legean salbuespen egoera aurkituko dugu, eta, eremu horretako taldeek salatzen dute lan eskubideen urraketak ez direla ez ikertzen ez ekiditen (Goikoetxea, Lujanbio, Rodriguez eta Garai 2020).

## Ondorioak

Nabarmendu bezala, ezinbestekoa dugu zaintzarekin lotzen ditugun praktikak, subjektuak, antolaketak edota beharrak denbora eta espazio zehatzetan kokatzea, eta kontzeptuari ere begirada horretatik itauntzea. Izan ere, diskurtsoek eta esanahiek ere errealtatea osatzen eta artikulatzen dute.


Lan merkatuan langileen eskubideak murrizten eta horien antolaketa zailtzen duen legedia zabaltzen ari da, eta meritu indibidualaren erretorikarekin batera garatzen ari da. Hala-ber, emakumeen doako lana gehitzea eragiten duten egituren pribatizazioak eta sektore feminizatuen prekarizazioak zaintzaren erromantizazio eta esentzializazioarekin garatzen ari dira. Osasun sistema publikoaren murrizketak autozaintzaren eta ardura indibidualaren aldeko diskurtsoekin batera

egiten ari dira. Menderatze sistema eta politika zehatzen inguruan sakondu beharrean, zaintzaren idealizazioaren eta politikaren sentimentalizazioaren inguruko hizketaldiak areagotzen ari dira.

Azaldu modura, autore ugari nabarmentzen dute zaintza nozioak etxeko lan edo ordaindu gabeko lan kontzeptuek atzematen ez zituzten nolakotasunak aztertzea ahalbidetzen duela. Aitzitik, eta

Pentsamendu  
feministatik garatutako  
kategoria eta adierazleen  
balioa azpimarratuta,  
azkenengo  
hamarkadetan aspektu  
erlazional, afektibo  
eta indibidualizatuekin  
lotutako zaintza lan  
berriak agertu dira

bidetzen duela. Aitzitik, eta  
pentsamendu feministatik  
garatutako kategoria eta adierazleen balioa azpimarratuta, azkenengo hamarkadetan aspektu erlazional, afektibo eta indibidualizatuekin lotutako zaintza lan berriak agertu dira, edota horien pisua eta garrantzia handitu egin da. Esaterako, haurren zaintza ludikoa, haurren etengabeko babeste indibidualizatua edo adindunen zaintzaren garrantzia biziraupena handitu delako.

Horrez gainera, zaintza emozionala, higiene eta praktika estetikoak (horietako asko gorputz femeninoa eraikitze praktika diziplinarioak dira) eta autozaintzarekin lotzen diren psikoterapia, makrobiotika, *mindfulness* edo yoga bezalako zabalpena. Izan ere, XIX. mendean eta XX. mende hasieran etxeko lana eraikitzen hasi zenean, gaur egun zaintza lanekin identifikatzen diren jarduerak ugari ez ziren existitzen, edota ez zuten egun duten zabalkunde eta pisua. Hortaz, Mendebaldeko patriarkatu liberalarekin lotzeaz gain, garrantzitsua da XX. mende erdialdetik gertatutako aldaketekin erlazionatzea. Izan ere, dominazio sistemak eta botere mekanismoak historizatzea esentzializazioaren aurkako arma eraginkorra da. 

**Bibliografia**

- Abasolo, O. (2010): 'El debate feminista en torno al concepto de cuidados', *CIP-Ecosocial. Boletín ECOS* 10.
- Benería, L. (2005): 'El debate inconcluso sobre el trabajo no remunerado', in D. Rodríguez eta J. Cooper (bilk.): *Más allá del debate sobre el trabajo doméstico. Antología*, Mexiko Hiria, UNAM, 53-89.
- Bianchi Pernansilici, G.; González-Rábago, Y. (2015): 'El cuidado de personas en la familia', in M. Legarreta (arg.): *Dos décadas de cambio social en la C. A. de Euskadi a través del uso del tiempo. Encuesta de presupuestos de tiempo, 1993-2013*, Gasteiz, Eustat.
- Carrasco, C.; Borderías, C.; Torns, T. (argk.) (2019): *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*, Madril, Catarata.
- Carrasquer, P. (2013): 'El redescubrimiento del trabajo de cuidados: Algunas reflexiones desde la sociología', *Cuadernos de Relaciones Laborales* 31(1), 91-113.
- Daly, M.; Lewis, J. (2000): 'The concept of social care and the analysis of contemporary welfare states', *British Journal of Sociology* 51(2), 281-298.
- Donzelot, J. (1979): *La policía de las familias*, Valentzia, Pre-Textos.
- Durán, M. Á. (2021): 'El cuidado y sus políticas', in M. Á. Durán (arg.): *¿Quién cuida? Aportaciones en torno a la organización social de los cuidados*, Gasteiz, Emakunde, 13-38.
- Esteban, M. L. (2017): 'Los cuidados, un concepto central en la teoría feminista: Aportaciones, riesgos y diálogos con la antropología', *QuAderns-E* 22(2), 33-48.
- Federici, S. (2018): *El patriarcado del salario. Críticas feministas al marxismo*, Madril, Traficantes de Sueños.
- Folbre, N. (1995): "Holding hands at midnight": The paradox of caring labor', *Feminist Economics* 1(1), 73-92.
- (2006): 'Measuring care: Gender empowerment and the care economy', *Journal of Human Development and Capabilities* 7(2), 188-189.
- Foucault, M. (2006): *Seguridad, territorio, población*, Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica.
- (2016): *Nacimiento de la biopolítica*, Madril, Akal.
- (2018): *Vigilar y castigar. Nacimiento de la prisión*, Mexiko Hiria, Siglo XXI.
- Gilligan, C. (1982): *In a different voice. Psychological theory and women's development*, Cambridge, Harvard University Press.
- Goikoetxea, J. (2017): *Demokraziaren pribatizazioa. Kapitalismo globala, politika europarra eta euskal lurraldeak*, Donostia, Elkar.
- Goikoetxea, J.; Lujanbio, L.; Rodríguez, Z.; Garai, E. (2020): *Euskal demokrazia patriarkala*, Donostia, Elkar.

- Himmelweit, S. (1995): 'The discovery of 'unpaid work': The social consequences of the expansion of 'work', *Feminist Economics* 1(2), 1-19.
- Lleó Fernandez, R.; Santillan Idoate, C.; López Gil, S.; Pérez Orozco, A. (2012): *Eztabaida feministarako kaierak. II. Zainketak*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa.
- Mogollón García, I.; Fernández Cubero, Ana (2019): *Arquitecturas del cuidado. Hacia un envejecimiento activista*, Bartzelona, Icaria.
- Pérez Orozco, A. (2006): *Perspectivas feministas en torno a la economía. El caso de los cuidados*, Madril, Consejo Económico y Social.
- Razavi, S. (2007): *The Political and Social Economy of Care in a Development Context. Conceptual Issues, Research Questions and Policy Options*, Geneva, United Nations Research Institute for Social Development.
- Thomas, C. (1993): 'De-constructing concepts of care', *Sociology* 27(4), 649-669.
- Torns, T. (2013): 'Los cuidados y la vida cotidiana', *Cuadernos de la Fundació Víctor Grífols i Lucas* 30, 86-97.
- Tronto, J. (1987): 'Beyond gender difference to a theory of care', *Jstor* 12(4), 644-663.